

GERRAURREKO LITERATUR KRITIKA

“Aita Santi Onaindia beka 1993” idazpurutzat duela, Iñigo Aranbarri eta Koldo Izagirre-k idatzitako *Gerraurreko Literatur Kritika* argitaratu digute Labayru Ikastegiak eta Amorebieta-Etxanoko udalak.

Haien orpoz orpo gatozen gerraosteko umeontzat nahiko hurbileko gaia. 1960-1970eko belaunaldi edo geroagokoentzat, ordea, liburu honen antzeko lanek bidea erraztu ezik, ilunpe antzean gelditzen den garaia izan liteke. Bai, badakit garai horretako idazlerik esanguratsuenak asko aipatzen direla, baita haietaz lan monografikoak egin ere. Baina idazle bat ikertzen denean, gehienetan haren ingurumaria ez da zehazki agertzen, handi-handikako zirrimarraz taxaturik baizik. Horrela, egileek diotenez, hor zegoen hutsune bat betetzera dator lan hau: “Bazegoen edizio aldetik -egileka egin diren bildumak gogoan-garaiko hotsa gurera ekartzeko nahitaez bete beharreko hutsune bat, alegia, 1930eko urteberri egunez Orixek Jauregiren *Biozkadak*-ez egin iruzkinetik gerrari hasiera emango zion altxamendu faxistaren uztailak 18raino bertaraino helduko diren literatur kritikak bere horretan eta kronologia errespetatuz jasotzearen beharra”. Aurreraxeago pentsamendu bera azpimarratuko digute: “Orain arteko ikerketek eta tesiek uzten zigten zirrikitutik jotzea baino ez zitzaigun geratzen. Idazleei ba-

nan-banan ateratako argazkiek atzeragotik egindako orokorra-
go bat egin behar zela zioten”.

Liburu hau gidari dugula, gerraurreko literatur kritikan zehar bidalditxo bat eragin nahi genioke *Karmel* aldizkariaren irakurleari. Ez da, beharbada, bide erraza izango, ezta atsegin edo gozo horietakoa ere, baina bai interesgarria. “Euskal literaturak mende honetako garairik interesgarriena 36ko gerra aurrean inoiz nahikoa luzatzen ez diren urteetan biltzen dela baldin badiogu ez dugu, ausaz, ezer berririk esango”.

Prentsaren ikuspegia

Prentsaren egitekoa aztertzen dute atal honetan: “Prensa eragile baterantz”. Baina hura ia isilpeko lanera, ezinbestean zirrikitu bakan guztiez baliazera eraman zuen Miguel Primo de Rivera jeneralaren diktadura aipatzen da hasiera-hasieratik. “[...] prentsa bozatzea izango zen gorantz zetozen mugimendu sozialak geldiarazteko harturiko erabakirik nagusienetako bat”. Beraz, aire garbia hartzeko, pentsamenduaren eta artearen inguruetan ibiltzeko esparru mehar itogarria gelditzen zitzaien idazle, intelektual eta komunikabideetako jendeai. “Estatuko prentsak isilaldiak eta zigor zakarrak jasoko ditu”. Aurreraxeago Tomas Agirre “Barrenso”ren hitzak hari bertik datoz:

“[...] Gero orratio, gure lumak bat batean ixildu bearra izan eben. Primo de Rivera'ren bakar-aginteak eragotzi euskun euzkeraz idaztea. A gure samiñ! Andik urte bira, abertzaletasunaren taupada zurbillenak ere oro ixildu ta il zirala zirudín. Ainbestekoa zan orduko ixiltasuna!

Geroxeago lasaitu eban bakarragintariak zerbait eskua arlo onetan. Arnasa artzeko beste. Zerbait egin eitekean. Euzkeraz idazten zan danaren itzulpena jaurlariarengana eruan bear izaten zan erderaz [...]”. Uterik gogorrenak, alde horretatik, diktaduraren lehen garaikoak izan ziren, hots, 1923-1925 urteak.

Arana-Goñirenen oinordetza politikoa bi adarretan zatiturik dago: Aberrikoak alde batetik eta Comunion Nacionalista Vasca-koak bestetik. Aberrikoek *Aberri* egunerokoa 1923an itxia izan zenez gero, ez zuten lortu beraien kontrolpeko prentsarik diktaduraren azkenaldira arte. *Euzkerea* izango dute soilik beren esku, hamabosterokoa, 1929an sortua, *Bizkaitarra* astekaria ateratzen 1930ean hasi arte. Comunion Nacionalista Vasca-ren esku zeuden orduko abertzaleengan eraginik handiena zuten bi kazetak: *Euzkadi* (1913) eta *La Tarde* (1914). Gerratera arte etenik gabe argitaratu zen eta Bilbon argitaratzen ziren beste egunkari batzuen antzeko tirada zuen, hau da, 10.000 ale inguru egunero. Engrazio Aranzadi "Kizkitza" izango du zuzendari 1927ra arte. Geroago, Imanol Aznar, Dionisio Azkue, Pantaleon Ramirez Olano eta Pablo Azkue.

Bizkaitik landa, *La Voz de Navarra* argitaratzen zuten jeltzaleek Iruñean 1923az gero. Garai honetan, Donostiako abertzale batzuk behar-beharrezkotzat jotzen dute Euskal Herriaren interesak gordeko dituen egunkari bat Gipuzkoan eta gipuzkoarrentzat ateratzea. *Gipuzkoarra* jadanik desagertua zen (1907-1913). Abagune ezin hobea du *El País Vasco*-k 1923an areak itxi eta makinak salgai jartzen dituenean. Hark utzi eta hogeita lau ordu barru moldiztegi berean *El Día* inprimatzen da. Honek alderdi politikoen lorratzetik at ibili nahi izango du, zentsurarekin arazorik ez izateko eta "Euzkadi" hitza ere ez erabiltzea erabakitzen du. Katolikotasuna eta euskaltasuna aldarrikanuko ditu. Javier Landaburu izango du zuzendari hasieran eta Jose Lekaroz gero. Bilboko *Euzkadi*-k baino hizkera moderatuagoa erabiliko du, Pio Montoia eta Jose Ariztimuño "Aitzol"ek markaturiko irizpideei esker. Aitzol izango da bertako "Euskal-Orria"ren ardura izango duena, euskara eta Euskal Pizkundearen inguruko propaganda eta eztabaidarako bide legez erabili zuelarik. Jeltzaleek badute beren ideiak aldarrikatzeko beste mediorik ere Gipuzkoan: abertzaleengana makurtuz zetorren egunkari monarkiko foruzale bat: *El Pueblo*

Vasco. Kazeta honetan aurkituko dute Kizkitzak eta Gipuzkoako lehen jeltzaleek beren idatziak non argitaratu. Saiz Valdívieso ikerlariak honela difinituko du: "Un órgano independiente en su enunciado; de derechas en su orientación y de izquierdas en su redacción". Beti gorde izan zuen lekutxo bat intelektual liberalentzat. "Bertan idatzi izan zuten Espainiako 98ko firmarik ezagunenetakook ziren Maeztuk, Barojak, Azorinek, Valle Inclánek..." Jose Zubimendi olerkariaren gain izango da euskarazko produkzioaren jarraipena. Dirudenez, Aitzolen orriak nahiz Zubimendirenak irakurle-jende bera zuen. Hasieran uste zen baino onuragarriago gertatu omen zitzaion Pizkunde mugimenduari, Aitzolen xedeetariko bat Alderditik kanpoko mugimendu bat sortzea baitzen.

Errepublika aurreko garai honetan baziren Gipuzkoan beste bi egunkari ere: *La Constancia* (1897) foruzalea eta *La Voz de Guipuzcoa* (1885) errepublikazalea.

1930eko azaroaren 16an Bergarako batzokian bilduko dira Abelino Barriola komuniozalearen zuzendaritzapean Aberriren eta CNVren 200 ordezkari. Bezperan Donostiako Euzko-Etxean hitzaldi bat izan zen. Agustin Anabitartek aurkeztuko zuen hizlaria: Jose Antonio Agirre, Bizkaiko diputatua. "*¿por qué somos nacionalistas?*" galderaren inguruan izan zen hitzaldia. Biharamunean, EAJ izen bakarraren pean bat egitea erabakitzen dute. Auzia honetan zetzan: erabakitze-indarra zeinen esku izango zen, BBBaren esku ala EBBaren esku. Azken honen esku zitea erabakitzen da, herrialdeetako batzarrei entzun ondoren. *Euzkadi*-n zer euskara eredu erabili ere gai beroa izan zen. Aberri-koak zeharo garbizaleak ziren eta Sabino Aranak *Leciones de Ortografía del Euzkera Bizkaino* lanean proposaturikoa jarraitzen zuten. CNVkoak malguagoak ziren, eskolen eta erabileren aniztasuna onartzen zuten. Dena dela, ez zen euskara eredu bakarra erabiliko.

Begarako bileratik hamabost egunera Euzko Abertzale Ekintza - Acción Nacionalista Vasca sortuko da. Hasieran pren-

sa abertzalearen bulegoetan batak eta besteak zuen indarra nahiko argi ikusi zen. Lehenengotan tailer berean inprimatuko dira bai EAJren *Euzkadi* eta bai EAEn *Nacionalista* astekaria. Baina kontrol hori eskuetatik joan zitzaizen EAEkoei eta 1933ean *Tierra Vasca* ateratzea lortu arte ez dute bururik altxatuko. Bazen EAek bultzaturiko besterik ere, Bilbon argitaratzen zen *Frente* (1930), esaterako. Errepublikazale eta sozialistek han-hemen ateratako aldizkarietariko bat zen. Honen hari eta joera berekoak ziren *La Frontera* Irunen, *Hoy* Tuteran, *La Republicana* Iruñean, *Álava Republicana* Gasteizen.

Aldi honetan behar-beharrezkotzat jotzen da idazleak egunkarietako sailetan izatea. Orixe *Euzkadi* egunkarian zegoen euskarazko orriaren arduradun. Geroago, Euskaltzaleak-en eskariz bere herri Orixara joango da *Euskaldunak* idazteko eta harrezkero Lauaxetak hartuko du haren lekua *Euzkadin*. Bada egunkari bakar bat hautatu duen idazlerik eta egunkari bat baino gehiagotan idazten duenik. Orixeek, esaterako, *Euzkadi*-n eta *El Día*-n idatziko du, gauza bera Aitzolek ere.

Literatur kritikaz lanik interesgarrienak egunkarietan agertu arren, aldizkariak ere oso kontuan hartzekoak izango dira. *Euskal Esnalea* aipatu behar, Pizkunde aurreko produkzioa ezagutzeko garrantzitsua. Alderdi politikoei loturiko prentsa izan bada orain arte indartsuena, erlijiosoek argitaratzen zituzten aldizkariak dira orain benetan esanguratsuak. Literaturaren gorabeherei dagokienez, hiru dira aipagarriak: Kaputxinoen *Argia*, Zornotzako Jaungoiko Zale Bazkunak *Jaungoiko Zale*-ren ordez 1932tik aurrera argitaratzen zuen *Ekin* eta Josulagunen esku zegoen *Razón y Fe*. Azken honetan agertzen den izenik aipagarriena Jose Maria Estefania josulagun bilbotarrarena izango da, Ibinagabeitia, Zaitegi eta Lauaxetaren irakasle eta Orixeren adiskide mina zena. Aita Estefania oso kontuan izatekoa omen da Orixeren planteamendu estetikoak ulertzeko.

Egunerokoa ez den prentsa ez-erlijiosoari dagokiolarik, *Euzkerea* aipatu behar dugu. Bilboko Pizkundera elkartearen ahots.

Sabino Aranaren arau ortografikoak estuen jarraituko dituen aldizkari legez agertuko da. Lauaxetak hor idazten duen arren, euskal literaturari buruzko iruzkinak "Agarel"ek, Elias Agirrek sinatuko ditu.

Patria Vasca Mexikokoa da izatez, baina 1932az gero Bilbo-ko Euzko-Gaztedik argitaratzen duena. Hemengoek baino gehiago atzerriko idazleen erreferentziak eman ohi dira bertan. Edizio oso zaindua zuen.

Pizkundea

1926ko urriaren 17an Elgoibarren eta hurrengo urteko maiatzean Mutrikun biltzar bereziak egiten dira. Hauek, Primo de Riveraren agintealdiko egoera pixka bat lasaitzean, gertatutako hainbat ekimenen lekuko eta bide-urratzaile izan ziren. Literatur sorkuntza eta euskaraz edota euskal gai ez egindako testuak lantzeko han-hemen antolatu ohi ziren ekitaldien lekuko. 1927ko irailaren 4an, Arrasaten, lehenengo "Día del Euskera" antolatzen da. Bildutakoei pixka bat begiratu, ongi ohar-tzen gara biltzar horrek zuen xede bateratzaileaz. Euskaltzaindia eta Nafarroako Euskararen Adiskideak erakundeez gain, ia euskal astekari eta aldizkari guztiak han daude. Berrogei gonbidatu eta bostehun bazkaltiar.

Ondorengo urteetan Iztueta, Olano, Larramendi eta Campioni eginiko omenaldietan, Euskaltzale Bazkuna - Acción Popular Vasca sortzen da Eusko Ikaskuntzaren adar legez. Hainbat kultur ekimenen eragile izango da erakunde berri hau: Haur Euskaldunaren Eguna (1929), Kirikiño Saria (1929), Homenaje de la Mujer al Euskera (1930)... Euskaraz egindako argitalpenak asko ugaritzen dira: Zamarriparen *Zaparradak* (1926), Gregorio Mujikaren *Pernando Amezketarra* (1927). Hauek Kirikiñok bere *Abarrak* izeneko liburuan hasitakoaren ildotik jo nahi zuten edota Bidasoaz handik Barbier-ek *Supazter chokoan* lanarekin hasitako bidetik, hau da, narrazio gozo, umoretsu eta euskara errazez irakurleak erakartzeko bidetik. Itzulpenetan ere berebi-

ziko ahalegina egin zen: *Oscar Wilderen Ipuñak* (J. Altuna, 1927), Grimm Anayen Berrogetamar ume-ipuin (V.A. Larrakoe-
txea, 1929), *Traducción al vascuence de un capítulo del Quijote*
(A. Irigarai, 1929) eta *Tormes'ko Itsu-mutilla* (N. de Ormaetxea,
1929). Olerkigintzan bi agertzen zaizkigu garai honetan: Emete-
rio Arreseren *Txindor* (1928) eta Luis Jauregi, Jautarkolen *Bioz-
kadak* (1929). Azken hau, Pizkunde garaiko lehen txinparta le-
gez hartua izan zen. Liburu hau aitzakiatzat edo abiagunetzat
hartuz bilera garrantzitsu bat egin zen Donostiako parte zahar-
rean San Tomas egunez. Aitzolek horretaz idazten du *El Pue-
blo Vasco* egunkarian "El actual florecer de la poesía euskal-
dun" izenburuz: "Integraban el grupo los poetas Nicolás de Or-
maetxea y José María de Aguirre, el comediógrafo Labayen y
los pintores Cabanas-Erauskin y Olasagasti, con algunos otros
cuantos renacentistas vascos". "[...] Todos los comensales estu-
vieron de acuerdo en reconocer el secreto poder que la poesía
encierra para hacer rejuvenecer a las viejas lenguas semidormi-
das. Por lo tanto, se hacía imprescindible el crear una institu-
ción para fomentar la poesía euskeldun. Y surgió la feliz idea
de organizar anualmente, el Día de la Poesía Euskeldun".

"Errepublikaren aldarrikapenarekin, Aitzol, Eliza Katolikoa-
ren hierarkiaren bedeinkapenaz, euskal kultur-politikaren buru
izatera pasatuko da".

1930eko martxoaren 9an Zumarragan egindako batzarrean
erabakiko dira behin-betiko Euskaltzaleaken antolaketa urrats
nagusiak. *El Día* egunkarian ezarri zen bide bera nagusituko
zen hemen ere, alderdi politikoezko neutraltasunari zegokio-
nez: "Euskaltzaleaken, Pio Montoyak eta Aitzolek berak, Jon
Andoni Irazusta, Ziaurriz eta alderdiko beste zenbaiten iritzia-
ren kontra *El Día* egunkariarentzat markaturiko bide bera eza-
rriko zuten, hots, erabateko neutraltasun politikoan oinarrituri-
koa izatea".

Egun gogoangarritzat jotzen da ekainaren lehena. Jose Ariz-
timuñok, Aitzol sinatzen hasia, artikulua interesgarria emango

du argitara *El Día* egunkarian. Errenterian ospatzekoa den lehen Oleri-Egunaren egitarauaren berri emango du. Lauaxeta gertatuko da irabazle "Maitale Kutuna" olerkiarekin eta Orixe bigarren. Lehenago Comillas-ko egonaldian bien arteko harremanak nahiko txarrak baziren izaera kontuengatik, epamahaia- ren erabaki honekin txarretik txarragora egingo dute.

Aitzolek ideiak argi ditu. Nazioa batez ere komunitate kultural gisa hartuz, poesiaren betebeharra garbi ikusten du. Pertsona aditu eta pentsalari batzuek esaten dutena kontuan du: "Antes de leer la obra de Chesterton, éramos del mismo criterio en cuanto a la eficacia de la poesía para la formación del euskera literario y la consolidación de la nación vasca". Honetaz Europako herrietan erreferentziak bilatzen ditu eta mirespenez hartuko du Finlandiaren kasua. Zenbakitan aipatzen du haien literatur produzioa eta honela dio ondoren: "Realmente, parece increíble que en un siglo de renacimiento se hayan realizado tantos esfuerzos de investigación. Pero Finlandia se empeñó en encontrar en la tradición popular artística su vida nacional, ya la halló. Ella, que no tenía más historia que la que Suecia le impuso durante años de esclavitud -ni tenía literatura, ni colegios, ni escuelas-, tuvo la fortuna de hallar su historia y su arte nacionales en la poesía popular".

Poesiak herria iratzartzeko duen egitekoaz ari da Lauaxeta ere: "Olerkarijak langorik eztago erri bat itxartu-erazoteko. Lur barnian datzan azijak zelako ots biguna egin daruan, be, entzuten baitau berak". Eromantizismoaren zainetatik datorren olatu honek herri hizkerekiko begirunea dakar ezinbestean. "Hizkuntza ez-inperialen garaia da".

Alde askotara begiraturaz, askapen nazionalaren hainbat buruzagi olerkariak direla ohartzen da; zenbait izen aipatu eta goretsiko ditu Aitzolek *El Día*-ko biografietan. Rizal eta Martí poeta martiriez gainera, Ariztimuñok Probentzaren berpizkunde kulturallean eragin aparta izan zuen Frederic Mistral izango du gogo-gogoan. Mistral-ek eredu gisa erakuts zitekeen lan bat

zuen: *Mirèto* (1859). Horrelako aukera guztietaz baliatuko da Aitzol eta 1930eko apirilean honela idatziko du *Euzkadi*-n: "Es un fenómeno general que se observa en el renacimiento literario de todas las lenguas. En la vanguardia figuran los poetas". Eta aurreraxeago arrazoitu egin nahiko du zergatik gertatzen den hori olerkarien izaeratik bertatik: "Grandes corazones, almas llenas de rectitud, la bondad pone una venda en los ojos del poeta para ocultarles las dificultades insuperables que en sí entraña la resurrección de una lengua ultrajada y vilipendiada. Una sed insaciable de justicia, una indignación caballeresca hace vibrar el estro, al que arrancan notas de dolor, armonías de esperanza y melodías de enamorado. Figuran en la vanguardia porque aman con más pasión. [...] Cuando el amor sea más elevado, más sublime será la fuente de su inspiración. Las poesías de San Juan de la Cruz son puro amor a Dios, como las de Mistral lo son para su pueblo y las de Sabino Arana para su patria". Dena dela, Sabino Arana bera ez zen iritzi bereko gai horretan eta honako hau esango digu: "No se quiera hacer vivir el patriotismo por medio de la literatura, ni por medio de la música; son simples auxiliares de la política". Hark abertzaletasuna ikusten du lehenengo eta gero hizkuntza. Ez poesia aberria eraikitzeko bitartekotzat, aberria eraiki ondoren etorriko den ondoriotzat baizik: "Hágase renacer por la fría prosa de ésta, que enseña la historia y la constitución patrias y asocia al pueblo en el amor patrio, y una vez vivo, que los euzkerianos sean patriotas, entonces la poesía se levantará pujante, hermosa y resplandeciente cantando la libertad y las glorias de la patria".

Alde horretatik Aitzolek berean iraungo du. Mistralekiko mirespena handia zen, baina ez Aitzolengan soilik. Eta ez dira laudorio eta gorespen-aparretan urtuko. Hura imitatzeraz joko dute, eta lehen-lehenik Orixek, Lauaxetak bultzaturik dirudienez, Mireio euskaraz emango du. Orixeren lana kritikak oso ongi hartzen du, Pierre Lafittek eta Jautarkolek batez ere goigoian jartzen dute. Harrezkero oso ospetsu bihurtuko da Mis-

tral bai Euskal Herrian eta bai Katalunian. Hark probentzan egindakoa eredu ontzat ageri zen Euskal Pizkundearen aitzindarien artean. Horretan hain bero ez zeuden banaka batzuk gorabehera, Euskal Herrian beharrezkotzat zuten ohituretan oinarrituriko poema nazionala egitea, herritik jasota herria iratzartzeko izango dena. "Los caminos de la poesía conducen al resurgimiento esplendoroso del alma del pueblo aletargado" gogoraraziko du Aitzolek. Lauaxetak ere gogoz hartuko du Mistralek proposatutako eredu. Orixek izango da horretarako hautatua. Bidea nahiko garbi du hautatuak: bere erroetan poema erlijiosoa izan behar zuen. Urtebete lehenago haxe idatziko du Bilboko *Euzkadi*-n:

"Para que haya un buen poeta vasco, muchos poetas vascos, no basta que se conozca, ame y describa la vida rural; es preciso que se extienda más allá, hasta las regiones superiores de los misterios reales y verdaderos".

Baina Orixek bera ezezik, beste batzuk ere saiatzen dira poema nazional honen nondik norakoak zirrimarratzen. Esaterako Lizardik 1932ko martxoan honela taxutuko du: "larreko zaina eta klasikotasun jantzia". Baina Lizardik beren-berengi azpimarratzen du poema horrek ez lukeela kantatu behar iraganeko gerra eta gertakari gogoangarririk, oraingoa baizik: "Ez alda obe, gure erri eder au bere oitura ta biziera berariez, gaurdaño iraun duan bezalaxe agertzea: gizadiari `orra gure erria` ots-egiñez; ez leengoa, alegia: gaur gaurkoa baizik?" Lizardik nahi lukeen oraina eta Orixek gogoan duena ez dira gauza bera. Orixeren oraina badoana da. Ez hiririk, ez makinarik, ez langileriarik.

Aitzolekitsu-itsuan sinesten zuen poesiak herria esnatzeko egin behar zuen mirari antzeko horretan. Hala ere amets huts gertatzen hasia zen susmoa zuen. "Handik gutxira, eta hainbeste iragarritako kontzientzien piztuera etortzen ez zela-eta, ordurarteko poesiaren iritzia eta eman beharreko aldaketaz mintzatuko da. Aitzolen egonarrria ahiturik da".

Kritika literarioa

Poesía beharrezkoa da bere egitekoa betetzen duen neurrian, baina ez edozein poesia. Hortik kritikaren beharra. Argitaratzen ziren liburuez publizitatezko iruzkin soila egin beharrean kritika literarioa egiten da. "Euskal Herrian lehen literatur kritikoen garaiari emango zaio hasiera". 1930a baino lehenago ere baziren literaturaz zihardutenak: Kirikiñok zuzentzen zuen *Euzkadi*-n Jose Maria Ojarbideren gogoeta batzuk ageri dira 1914an, nolabait literaturari ukitzen diotenak: "De qué debemos escribir en euzkera", "Cómo debemos de escribir en euzkera". Aitzol beraren idazlan batzuk ere ageri dira urte berean Joseba izenordez. Prentsa ez-jeltzalean Mourlane Mitxelenak markatuko du batez ere literatur kritikaren bidea. 1930-1936ko tarte horretan, ordea, abagune hobea izan zuten literatur kritika serio, antolatu eta arrazoitua egiteko. Abagune hori garai horretan antolatu ohi ziren Olerti-Egunei esker etorriko da. Horren eraginez idazle berri asko azalduko da lehiaketan plazarara. Hasiera-hasierarik nabari zena hau da: idazleak eurak zirela kritikari ere. Izen berdinak ageri zaizkigu batean nahiz bestean. Errealitate hori kontuan izanik, benetako kritika ausartaren mesedetan honako hau idazten du Orixek *Euzkadi*-n: "La amistad no nos debe prohibir -sería mal entendida amistad- el exponer lo que honradamente entendemos en toda su integridad: lo digno de alabanza, alabándolo con mesura: lo digno de censura, si lo hubiese, sensurándolo en términos amables, con el único fin de perfección que aun es dable en la obra de nuestro lírico".

Hedaduraren izenean gaztelania hautatzen da kritika-lanetarako. Lauaxetaren esaldi honetan argi ageri da zergatik jotzen den gaztelaniara: "erderaz esango dautsut, ez errazago yatalako, idaztijaren zabalkundia egin nai dodalako baiño". Kritikak bakoitza bere tokian jarri behar lukeela eranstean du, ez bakarrik epaitua dena, baita epailea bera ere, eta honela burutzen du: "[...] Es hora de que la crítica coloque a cada uno en el

puesto que se merece. Al literato en su plano y al escritor en el suyo. Porque no todo el que escribe es literato, aun cuando tengan varios libros publicados”.

Goian aipatu dugunez, pertsona berek orain idazlearena egi-ten eta gero kritikariarena ibili beharrak bazuen bere arriskua eta ez txikiena, kritikaren aurrean oso minbera agertzea eta kritika ia soilki gramatika hutsetara lerratzea. Orixeren hitz hauek oso adierazgarriak dira: “Es muy cómodo callar para no indisponerse con nadie [...] hablar únicamente, a veces machaconamente, de las incorrecciones gramaticales. A esto último se reducen, por desgracia, las críticas entre nosotros” (*Euzkadi* 1930). Aita Estefaniak gramatikaren ikuspegi zorrotzegtik egi-ten diren kritika horien desegokitasuna salatzen du. Lauaxetak *Bide Barrijak* argitaratu ondoren egin zizkioten kritikez ari da:

“La Gramática, o algo parecido a la Gramática, se puso de ceño contra el nuevo poeta, y con ocasión de él, contra algún otro de los más egregios entre los euskaldunes, descubriendo en sus nuevos procedimientos un germen temible, una malvada levadura muy capaz de corromper el castizo vascuence”.

Donostian izan zen otordu batean Orixeri arren eta arren egin zioten has zedila gero beraiek mintzatuko zirela eta. Hemen ere gramatikaren arloa jorratzea nahi zuten, kontizu, eta Orixek honela erantzungo du: “Lauaxeta-ri ere argi zabalean Orixe gaiztoak esan behar al dizkio Gramatika-utsegiñak?”. Aita Estefaniak olerkigintzaren alde estetikoa du gogoan honako hau diocncan: “*Bide Barrijak*-en iritzia ematean Gramatika arazoetan sartu nai ez nula esanik utzi nun: batez ere olerkari denez aztertzen nula”. Geroxeago hau dio: “[...] baina orain asi diran gazte bero oiek geldiarazi baino zirikarazi naiagoz ari naiz”. Lauaxetak *Euzkadi* egunkaritik eskerrak emango dizkio, eta idazleek duten kritikaren beharra gogoraraziko du. Bi hilabete lehenago ere kexu agertu zen Lauaxeta Lizardiren *Biotz-Begietan* agertu ondoren izan zen mututasunaz: “Olako olerkari bat agertzen danian, alde guztijetan poza entzun biar geun-

ke, baina lurralde onetan ots bat be eztozu entzun. Negar egiteko lain!". Kritikak bazuen, beraz, idazleek berek eskatuko duten ageriko betebeharra.

Kritika, bakoitzaren joeraren arabera bideratu ohi da. Orixeek, esaterako, klasikotasunean ikusten du bere burua. Klasikoa denbora gainditzen duena da: "Lo moderno duradero, lo que resiste una crítica seria, es, como hemos indicado, lo clásico". Aitzol, ordea, sutsuagoa da: "El artista intuye, y cuanto más fuerte e intensivamente intuya, más poder de expresión de la belleza poseerá". Eta kritikaz honela dio: "La crítica soberana tiene su punto de partida en el entusiasmo".

Literaturaren inguruko eztabaidak

Pizkundea edo Aitzolen belaunaldia deitu izan den taldean iritzi kontrajarriak zeudelako gertatzen ziren eztabaidak. Egitasmo bateratu bat aurrera atera ahal izateko diferentzia handiegiak behar bada. 1930-1936an gutxienez poesiari buruzko hiru joera nagusi bilduko dira: 1. XIX. mendeko euskal erromantizismoaren azken hondarrak, bertsolaritzak kutsatutako olerkigintza emango dutenak. Hauen artean Emeterio Arrese eta batez ere Luis Jauregi "Jautarkol" aipatu behar dira. Kritikari dagokionez, Arrese ez da sartuko, baina Jauregik ekarpen interesgarriak egin dizkio literatur kritikari. 2. Bigarren joera Orixeren inguruan zebiltzanena da. Hezkuntza klasikoa jaso eta olerkigintzara proposamen klasikoak ekarriko dituztenak dira. Homero izango dute gogoan, olerkigintza narratiibo eta epikoa maite dutelarik. "*Pentsamenduak eta afektuak elkar ondo nahastean* dago poesiaren *urrezko neurria*, eta konbinazio honetarako ezinbestekoa da Europa aldetik zetozen joera frantses *biguin eta zirtzilei* hesiak altxatzea". 3. Hirugarren joera gerra aurreko euskal olerkigintzara benetako iraultza eta haize berriak ekarriko dituztenena da, nahiz eta beraien artean alde handiak izan. Hauen artean bete-betean sartzen dira Lauaxeta eta Lizardi. Sinbolismoan, modernismoan, eguneroko bizitzarekin loturik den poesiaren idealismoan dute lekua. "Juan

Ramón Jiménez baten jarreratik gertuago Orixerenarengandik baino”.

Dena dela, bazen aipatutako hiru joera hauetarik at zebilen olerkari multzo bat ere; bete-betean behintzat talde hauetariko inongoa ez zena. Olerki-Egunetan agertuz joango direnak ditugu, “ez horren izaera markatuko eta batez ere, planteamendu estetikoak prentsa-kritikaren bitartez arestian aipatuek bezain garbi agertuko ez dituztenak. Hauen artean dira garaiko *best-seller* bihurtuko den *Aberri-Oyuak*-en egile den Zubimendi bat, erraz-zaleek beren planteamenduen adibide agertuko duena, edo Etxeberria jesuita, neopopulismo honetatik bertatik edango duena; tipismoz jantzitako estropadak, pilota partidak emango dituen Paben Loidi gaztea; Loramendi eta Erkiaga, modernismora etzanak, baina Lauaxetaren trabesera heldu gabe; Otamendi eta Sukia, aurrekoen “biguntasun” gabeak”.

Ikerketa honen egileek hiru sailetan bereiziko dituzte bildutako ehun eta berrogei artikuluetan barrena nabari diren eztabaida nagusiak: a) Lauaxetaren *Bide Barrijak*-en ostean piztutako den hizkuntzari buruzkoa. b) Klasikotasunaren inguruan batez ere Orixe eta Lauaxetaren artean sortutako dena. c) Herri-olerkia eta poesia landua ardatz zituena eta Aitzolek hartutako zuen bidearengatik sekulako garrantzia hartuko duena.

Hiru dira batez ere Lauaxetak *Bide Barrijak* olerki-liburuan darabilen hizkuntzaz astindu ziren lumak: “Euskaldun bat”ena, Larrekorena eta Barrensororena. “Euskaldun bat”ek Lauaxetaren hizkuntz eredua erasotzen duela dirudi. Bestalde irakurri ere ez du egin: “Lauaxeta-ren *Bide berrijak* (sic) ez det ikusi: Bizkaieraz egon bear du, ta nik ez dakit gipuzkoeraz baizik”; geroxeago honela dio: “Aldi onetan azaltzen diran olerki batzuk beintzat ulerkaitzak dira euskaldunontzat. Erderatuak diralako, zerbait erderatik ezagutzen dira; baña euskeraz bakarrik azalduatik ulertu gabe geldituko giñanak badira. Alaz ere, oiek aipatu, ta oiek saritu” (*Argia*, 1932-II-7). Eraso honek Lauaxeta ezeze Lizardi ere bete-betean hartzen du. Larrekok

antzeko zerbait idazten du *Argia*-n bertan hiru aste lehenago: "Ainbeste urtetan euskaraz ikasten eta orain argituenekin euskaraz elkar ezin aditu! [...] Bide berriak egiten ari dire eta guk ez jakinki bide berri orietan barna ibiltzen!". Barrensorok, aurreko bien antzera, ulergarritasunaren auzia dakar eta Lizardi-*ren* olerkigintzari egiten dio eraso oraingoan, bide batez haren prosa goraiatzan duen bitartean: "No soy enemigo de toda novedad. Es Magistral la prosa de Lizardi. Limpio, excelente, pero comprensible. Es forzoso confesar que no es lo mismo en el verso. ¿Es que no sabemos euzkera? Ha comprimido el pensamiento bajo la forma hasta dejar la idea oscura e indeterminada.

Si no tuvieramos la traducción castellana que nos serviría de guía, no sería posible su captación. Sería caminar entre guijarros" (*Euzkadi*, 1932-II-24).

Barrensorok ulertzeko zailtasuna ez dio hautaturiko euskara ereduari egotzen, "Euskaldun bat"ek egiten duenez. Lauaxetak *Euzkadi* egunkarian usu erabilia zen euskara jasotzen du. Beraz, gakoa neurri batean poesian bertan zegoen eta ez aukeraturako hizkuntza ereduari.

Klasikotasunaren inguruan Orixek eta Lauaxetaren arteko eztabaidea dugu batez ere, noizbehinka Barrensorok eta besteren bat ere plazaratzen direlarik. Orixek, modako pintzelada ihes-kortzat ikusi nahi luke Lauaxetaren modernismorako joera. Lauaxetaren *Bide Barrijak* liburuan joera bi antzematen ditu: Frantziatik datorren joera modernista (Orixek ezin irentsi duena) eta klasikotasunaren barruan legokeena. Dena dela, ahozurikeriaz edo, honela dio: "Este tinte de modernidad que comunica usted a sus versos, viene bien, aunque no fuera sino un alarde de adaptación". Eta honela jarraitzen du: "Bastantes veces hemos convenido en nuestras charlas que esa poesía blanducha y fútil de cierta escuela francesa no es más que una moda de los grandes maestros de la moda europea y mundial. Está bien que nuestro amigo haya sacado partido de ella para

autorizar nuestra lengua, pero lamentaríamos mucho que cualquiera sin discreción y depurado gusto se empeñase en imitarle". Orixek aholkuak ere ugari tartekatzen ditu bere literatur kritiketan eta hala egiten du hemen ere: "No hay que enamorarse de ninguna escuela como tal ni de esta o aquella estética imperante. Hay leyes filosóficas eternas que están asentadas sobre el buen sentido, la disciplina, la armonía, la medida y, sobre todo, la unidad artística, que hoy tanto se descuida". Hurrengo artikuluan ere aholkuetan oparo ageri da: "Le aconsejaría yo, en primer lugar, que refrenase o dominase un poco más la imaginación y la sensibilidad; y en segundo y último lugar, y con más encarecimiento, que procure buscar y obtener la unidad artística, que es la piedra de toque de toda obra de arte. Las ideas y los afectos no deben componer mosaicos rígidos. El pensamiento y el sentimiento no deben ir como dos líneas paralelas distintas, sino sobre una misma recta, fundiendo su acción para un mismo efecto" (*Euzkadi*, 1931-XII-8).

Barrenoro ere noizbehinka azalduko da eztabaida hauen plazan. Aipaturiko artikuluko hartan, Lizardiz ari zela, bi bide ikusten dituela olerkarien artean baieztatuko du: "La de los escritores que quieren seguir discurrendo por los cauces clásicos, y la de los innovadores que pretenden explorar nuevas, desconocidas rutas".

Lauaxetak bere burua ez duela klasikotzat dio, ezta erromantikotzat ere, ederzaletzat baizik. Dena dela Orixek eta Lauaxetak "klasiko" diotenean, ez dira gauza berberaz ari. Orixek "klasiko" dioenean behin-betikoa esan nahi du, disziplina, harmonia, neurria eta batez ere batasun artistikoan oinarritzen diren lege filosofikoek emana. "Klasiko eta klasikotasunaren kontzeptu hau kultura helenistikoan sortu zen, jakintsu alejandrinoek Grezia zaharreko egileen artean eredu izango zirenak aukeratu zituztenean. Honela ulertua, Orixeren klasizismoa ereduetan oinarritua da, ez nahitaez greko eta latinoak -Orixek Dante eta Fray Luis de Leon ere sartuko ditu-, baina bai haien

irudira obra perfektoa lortzera jo dutenen gainean". Lauaxetarentzat, ordea, klasikotasuna denborarekin aldatuz doa. Klasi-kotzat hartu izan direnei aitortzen die berena, baina anakroni-koa litzatekeela dio gaur egun haiek bezala idaztea. Bestalde, onartzen du ezinezkoa datekeela haiek idatzitakoa aintzat har-tu gabe idaztea. Orixeek klasikotzat dituen asko Lauaxetarentzat ez dira klasiko hutsak. Badute zain klasikoa, baina baita zain erromantikoa ere, esaterako, Virgilio, Teokrito horrelakoak lira-teke, eta Goethe ere bai.

Klasikotasunaren eztabaidan bide batez originaltasuna ere pixka bat jorratu da. Txomin Irigoien, Orixe eta Aitzol izango dira besteak beste horretaz iritzia emango dutenak. Imitazioa ona denean ez dela batere gaitzesgarri esango digute bai Ori-xek eta bai Aitzolek. Orixeek: "Jáuregui es a veces imitador o adaptador. No es (a veces) deshonra, sobre todo cuando la imitación es mejorada". Aitzolek: "Ni el ser imitador es vileza alguna, cuando la imitación es buena". Orixeek oraindik urru-nago joko du, plagioa, itzulpena eta kalkoa baliagarri diren neurrian onartuz: "[...] voy a decir dos palabras sobre el calco, el plagio y la traducción. En nuestros poetas que nada han aprovechado de lo poco doméstico, no cabe plagio, pues por lo menos es menester traducir, sea de Lope, de Verdaguer, de Jorge Manrique o de Ovidio. La traducción a nuestra lengua es evidente que será útil hasta que ensanchemos más nuestro ho-rizonte literario" (*Euzkadi*, 1930-1-21).

Herri-olerkia

Ametsez sortu eta gora eta gora zetorren mugimendua ilu-naldian sartzen da. Okerreko bidetik jo ote den susmoak gero eta indar handiagoa hartzen du. Egin den ahaleginak ez du ba-lio izan, kontizu, herria bere lozorrotik iratzartzeko. Etsipena hurbil da. Aitzol, Pizkundearen aitzindaria, isilik egon da au-rreko eztabaidetan. Bi gertakari daude orain guztien gogotan: Zubimendiren *Aberri Oyuak* argitaratzen da arrakasta handiz

eta IV. Euskal Olerti Egunean Franzisko Etxeberria gertatuko da irabazle. Herri-olerkia izan daitekeela egiazko bidea uste dute askok. Aitzol bera ere horrantz lerratuko da. Lizardik, bere heriotza aurreko artikuluan, guztientzat dagoela tokia aldarrikatuko du: "...El patrón Txirrita? El patrón Muxika?... El patrón Yauregi?... Ni Txirrita zalea nauzue, ta argatik lengoan nago. Ez det uste euskal-literaturaren auzia ain errez erabaki ditekunik".

Aitzolen salaketa nahiko gogorra izango da: idazleek ez dutela herriaren bidetik joaten asmatu eta irakurleak uxatu dituztela esango du: "Ellos lo han alejado con un euskera subjetivista, personalmente arbitrario, con un valor en las imágenes y frases totalmente personal, que el lector no puede ni interpretar ni adivinar sino tras grandes esfuerzos".

Orixeren *Barne-Muinetan* olerki-liburua ere nahi baino zailago gertatu zaiola aitortuko digu: "Lo confesamos sinceramente: hemos tenido que recurrir al erdera para apreciar en más de una ocasión las bellezas encerradas en las estrofas de *Barne-Muinetan*".

Olerti-Egunetarako deian ohar bat agertzen da argi eta garbi: "Aditzeko errez ez dan olerkaririk ez da saritua izango". Sebero Altubek artikulua bat idazten du azken berrogei urtetan herria kontuan hartzen ez duen literaturak egindako kaltea zuzentzera dei eginik. Populismoaren aldekoa da Altuberen gogoeta. Justo Mokoroak ere *Jenio y Lengua* liburuan bere ahotsa jasotzen du. Idazleek ibilitako bidea okerra izan zela zabalduko da garaiko prentsa guztian. Beste iritzi askoren artean Mikelats-ek *Ekin* astekarian ematen duena dakargu hona:

"Neure aburuz, au gerta yaku. Euzkerea obetu dogu. Irakurliak obetu ete doguz? Ezetzian nago. Euzkera arazuak aztertu ta ikasi dabezanak euzkera obetu au ulertuteko gai egin dira. Euzkeldun geyenak ez. Eta neure ustez beintzat, idazten ba da, irakurlientzat idatziko da. Eta irakurliak ez tira euzkerari buruz idaztien mallara igon. Ori dala-ta, ezta irakurten gitxi

baño. Eta yakina, irakurten ez-pada, alperrik dagoz egiten diran idaztiak”.

Hain gartsu hasitako proiektua noiz itzaliko dago. Krisirik larrienean. Lauaxeta ez da agertzen jadanik prentsako kritikaleihora. Lizardi eta Loramendi zenduak ziren, Barrensorok, negozioak zirela bide, Sevillako bidea hartzen du, aita Estefania Frantziako erbestean da. Aitzolek ikusi nahi izan zuen poesia zuzpertzalea, erraz-zaleago bilakatu den arten, kalean bizi den giro politikotik at dago, hartan inolako eraginik ez duela. “1936an lehertuko den Gerra Zibilaren errautsek ez dute hilotsa baino estaliko. Sei urtera iritsi ez den ametsa hilabeteak dira hilda dagoela”.

Amaiera iluna, tristea... baina hementxe uzten dugu, irakurle, Iñigo Aranbarri eta Koldo Izagirrek egindako liburu ederra lagun, gerra aurreko literaturan barna egin dugun bidaia hau. Interesgarri eta garai hura hobeki ezagutzeko baliagarri gerta bekizu.

Luis Baratazarra Txertudi